# IHITZA

Bigarren sasoia • Segunda época

OTOÑO • 2003 • UDAZKENA

12


**ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN ◆ POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA**

1,80 €



# Parte-hartzea: eskola, nahi dugun erara

www.euskadi.net/ihitza

IHITZA

ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN

Bigarren sasoia. **12. ZENBAKIA**
2003ko UDAZKENA

**PARTE-HARTZEA: ESKOLA, NAHI DUGUN ERARA**

POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA

Segunda época. **NÚMERO 12**
OTOÑO de 2003

4015 Posta–kutxatila
48080 Bilbao

www.euskadi.net/ihitza
posta–e: ihitza@ej–gv.es

**Zuzendaria // Director**
Josu Erkiaga Laka
**Argitalpen–kontseilua // Consejo editorial**
CEIDA
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua // Servicio de Educación Ambiental del Gobierno Vasco
**Erredakzio–taldea // Redacción**
Isabel Prieto de Blas
Itziar Beasain Ingunza
Hasier Rekondo Laskurain
**Kolaborazioak // Colaboraciones**
Olga Conde Campos
Antoni J. Colom
**Argitalpena // Edición**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia // Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
**Maketazioa // Maquetación**
Begi Bistan
**Argazkilaritza // Fotografía**
Iñaki Díez Fernández
**Ilustrazioa // Ilustración**
Fernando Ibáñez de Elejalde Villate
**Itzulpena // Traducción**
Ana Santos Elortza
**Fotomekanika // Fotomecánica**
Gráficas Santamaría, S.A.
**Inprimaketa // Impresión**
Gráficas Santamaría, S.A.

Kontsumitu osteko paper birziklatua %100ean
Papel reciclado postconsumo 100%

**ISSN:** 1135-6391
**L.G. // D.L.:** VI-825/92

CEIDA

- **Araba**
  VITORIA–GASTEIZ
  • ✆ 945 17 90 30
- **Bizkaia**
  BILBAO
  • ✆ 944 11 49 99
  URDAIBAI
  • ✆ 946 25 71 25
- **Gipuzkoa**
  DONOSTIA–SAN SEBASTIÁN
  • ✆ 943 32 18 59
  LEGAZPI
  • ✆ 943 73 16 97

**IHITZAk** ingurumen hezkuntzari buruzko eztabaidarako topagune bihurtzea du helburu. Hortaz, aldizkaria ez da bertan sinaturik agertzen diren artikuluen erantzule.

**IHITZA** pretende ser un foro de debate sobre educación ambiental y no se hace responsable de las opiniones expresadas en los artículos firmados.

# agur

***BEHAR BEZAIN DEMOKRATIKOA OTE DA ORDEZKARI BIDEZKO DEMOKRAZIA?***
***Herritarrek erabaki politikoetan parte hartzea ez da jokabide berria. Ingurumen–gatazka deitu zaienetako batzuek kolokan jarri dituzte zenbait udal eta erkidegotako gobernuak, bai Europan, bai Estatu Batuetan, eta zalantzan jarri dute ordezkari politikoen gaitasuna, erabaki estrategikoak hartzeari dagokionez.***

***Egoera horri erantzuteko, legeria gardentasun handiagoa lortzeko moldatuz joan da, eta gero eta instituzio publiko gehiagok erabiltzen dituzte parte–hartzea sustatzeko eta isolamendua saihesteko bitartekoak. Gaur egungo gizarteak, bere bizitzan eragina izango duten erabakiak ezagutu ez ezik, bere iritziak aintzakotzat har daitezen ere nahi du.***

***Baina, hona hemen galdera: nola hartu parte? Administrazioaren eta ekologisten edota auzo–mugimenduen arteko ohiko eztabaidak alderdi teknikoetara mugatzen ziren; erabaki politikoek ingurumenarentzat jasanezina zen garapen ekonomiko jakin bat bultzatzen zutela pentsatzen baitzen —zalantzan jarri den garapen ekonomikoa, hain zuzen ere—. Iritzi funtsatua edukitzeko behar den ezagutza-maila lortu nahi bada, ondo taxututako informazio eta prestakuntza aldiak antolatu behar dira, ezinbestez, erabakitzeko prozesuetan, parte-hartzea benetakoa izan dadin.***

***Aldi horiei*** **gaitzeko baliabide** ***esan ahal zaie, baina, berez, ingurumen–hezkuntzatzat hartzen dugunaren atal dira, euren helburua gizarteak bere inguruaren errealitatea ezagutu eta berori hobetzen parte har dezan lortzea delako.***

***¿ES LA DEMOCRACIA REPRESENTATIVA LO SUFICIENTEMENTE DEMOCRÁTICA?*** *La participación popular en las decisiones políticas no es una cuestión nueva. Algunos de los llamados conflictos ambientales han hecho tambalearse gobiernos locales y regionales tanto en Europa como en los Estados Unidos, y han puesto en entredicho la capacidad de los representantes políticos a la hora de tomar decisiones estratégicas.*

*Como respuesta a esta situación, la legislación ha ido adaptándose hacia una mayor transparencia, y, cada vez más, instituciones públicas incluyen mecanismos de participación que eviten su aislamiento. Hoy en día la sociedad exige no sólo conocer las decisiones estratégicas que van a afectarle, sino que sus puntos de vista sean tenidos en cuenta.*

*La pregunta es... ¿cómo participar? las clásicas confrontaciones entre la Administración y movimientos ecologistas y/o vecinales solían discurrir por cauces técnicos, ante la idea de que las decisiones políticas buscaban favorecer sólo un tipo de desarrollo económico ambientalmente insostenible, que ya ha sido cuestionado. El nivel de conocimiento necesario para tener una opinión formada exige que los procesos de decisión realmente participativos incluyan fases de información bien diseñadas.*

*A estas fases, les podemos llamar* mecanismos de capacitación, *pero forman parte de lo que entendemos como educación ambiental, ya que tienen como objetivo que la sociedad conozca la realidad del entorno en el que se desenvuelve y participe en su mejora.*

***Sabin Intxaurraga Mendibil***
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILBURUA
CONSEJERO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

***Anjeles Iztueta Azkue***
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA
CONSEJERA DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**harpidetza // suscripción**

IHITZA **Hiru aleko harpidetza** // Suscripción por tres números **5,41 €**

***Izen–deiturak edo egoitza*** // Nombre y apellidos o razón social ..........................................

***Helbidea*** // Dirección ..........................................

***Posta kodea*** // Código postal .............. ***Herria*** // Localidad ..............

***Herrialdea*** // Territorio .............. ***I.F.Z.*** // N.I.F. ..............

***Telefonoa*** // Teléfono .............. ***Faxa*** // Fax ..............

***Posta–e*** // Correo–e .............. ***Zenbaki honetatik aurrera*** // Desde el número ........

**ORDAINKETA. Egin zeure banku transferentzia Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren kontu zenbaki honetara: 2097 0178 11 0010963058. Ez ahaztu zeure datuak ordainagirian zehaztea. Bidali harpide agiri hau helbide honetara: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia–San Sebastián 1, 01010 Vitoria–Gasteiz.**

FORMA DE PAGO. Transferencia bancaria a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Número de cuenta: 2097 0178 11 0010963058, indicando quién hace el ingreso. Esta solicitud se enviará a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Donostia–San Sebastián 1, 01010 Vitoria–Gasteiz.

# egon badago

## gaia zabaltzen

### La participación ciudadana: un proceso de aprendizaje permanente

**4** *Avanzar hacia una cultura más participativa supone, en primer lugar, estar convencidos de que todos tenemos algo que aportar, que no pueden gobernar el mundo los intereses económicos de unos pocos.* Olga Conde



## jakinaren gainean

**6** *Agenda, albisteak, irakurleen iritzia.*

## eta gurasoek zer?

### Maiatzean martxan: una experiencia de participación

**28** *La AMPA del CEP Legarda Alde LHI de Mungia apuesta por la participación y la educación ambiental de todos los estamentos del centro... familias incluidas.*



## begiratokia

### ¿Es suficiente la educación ambiental?

**25** *La educación, si quiere no ya modificar actitudes, sino lograr una praxis de acción política y cívica, debe cambiar las estructuras de pensamiento; debemos enseñar a pensar diferente, por lo que nuestro trabajo debe ser radicalmente cognitivo.* Antoni J. Colom

## klasetik at

**26** *Gure komunitatearen bizimoduan parte hartzea borondate kontua da. Boluntariotza gizartean parte hartzeko modurik onenetakoa da. Ausart zaitez parte hartzen!*



## baliabideak eskura

**29** *Parte hartzeko gaitasunak pertsona konpartitzeko, eztabaidatzeko eta adosteko gai dela adierazten du. Irakaskuntzaren erronka handietako bat baloreak sustatzeko hezkuntza da. Horixe da hemen aurkezten ditugun baliabideen xedea.*

## 9 bitakora kaiera

***Gure eguneroko bizimodua baldintzatzen duten erabakiak hartzen dituztenak kritikatzen ditugunean, gutxitan pentsatu ohi dugu guk geuk onartzen diegula gure iritzia aintzat hartu gabe erabakitzea.***

## guztiok elkarlanean

### Serantes mendiaren itzalpean, partaidetzan bikain, ingurumenaren onuretan

**10** *Zuhaitzaren Egunaren aitzakiz, Santurtziko Serantes mendira zuhaitzak landatzera joan ziren ikastetxeetako kideekin elkartu ginen. Bertan, aurreko ikasturtean Karmele Alzueta saria jaso zuen Serantes ikastetxeko Jose Manuel Etxebarria ingurumen arloko koordinatzailearekin mintzatu ginen.*



## eskolako eko-auditoretza

### Ikasleen parte-hartzea ikastetxean

**14** *Ikasleek ikastetxeko eta ikasgelako erabakietan noraino parte hartzen duten ebaluatzeko inkesta. Norberaren eta taldearen erantzukinari buruz eztabaidatzeko oso material egokia.*

## bizkor ibili gero!

### Humatika Handia Makundun uhartearen aurka

**24** *Turismo masiboa eta ondasun higiezinetako inbertsioak gaur egungo inbasio-armarik maltzurre-nak dira. Makundun uhartea horren adibide da.*

## ekin eta ekin

### Txio-txio

**16** *Haur Hezkuntzako jolasa.*



### Hauxe nahaspila!

**17** *Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako jolasa.*



### Zer egingo zenuke orube honetan?

**18** *Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako azterlana.*



### Makina bat piezaz pieza

**19** *Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako jolasa.*



### Uharte bakartia

**20** *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako jolasa.*

### Parkea diseinatu

**21** *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklorako eztabaida.*

### Zaramarekin bueltaka

**22** *Batxilergo eta Heziketa–zikloetarako ariketa.*




*Todos los textos de IHITZA en euskara y castellano en* **www.euskadi.net/ihitza** *web orrian IHITZAko testu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz*





# La Participación Ciudadana: un proceso de aprendizaje permanente



*Olga Conde Campos*

Educadora del Servicio de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Zaragoza

***Artikulu honen egilearen iritziz, herritarrek informatuta egon behar dute, eta beraiekiko elkarrizketa sustatu egin behar da. Bi faktore horien —informazioaren eta elkarrizketaren— menpe dago gizarteak hautatuko dituen irtenbideen nolakoa.***

**En los últimos tiempos,** la palabra *participación,* al igual que *medio ambiente* o *desarrollo sostenible,* ha pasado a formar parte de todos los discursos y todos los documentos, pero ante esta realidad podemos intentar contestar a varias preguntas ¿A qué responde esta nueva situación? ¿Qué entendemos por participación? ¿Es posible encontrar mecanismos para conseguir el protagonismo ciudadano en las decisiones públicas? Estamos en un momento en el que se reconoce una cierta crisis en las democracias representativas occidentales. Muchos ciudadanos observamos cómo desde las instituciones políticas, se toman decisiones en las cuales no nos sentimos representados. Los partidos han reducido la participación social a unos canales estrechos: votar cada 4 años; y ello les otorga un poder para actuar y tomar decisiones en nombre de la ciudadanía que les ha votado. Decisiones que se alejan cada vez más de las opiniones y voluntad de la sociedad civil, produciéndose una creciente desconfianza social hacia los partidos políticos.

Esta reflexión se puede extender también a la forma de funcionamiento de muchas organizaciones sociales. Como dice José Saramago referido a su país, entendimos la democracia como un punto de llegada y no como un punto de partida. Y si reflexionamos en nuestra historia más cercana, tras una dictadura, la recuperación de las libertades podía habernos permitido iniciar un proceso de profundización democrática, de aprendizaje en la participación. Sin embargo, se creyó que tener libertades era la meta final, y entendimos la democracia como un delegar las responsabilidades de decisión y acción en los políticos, pero también en los dirigentes sindicales, vecinales...

Este puede ser el factor fundamental que repercute en este sentir creciente de búsqueda de nuevas formas de participación, pero hay otro factor que procede de las conclusiones tomadas, en estos últimos años, en foros europeos e internacionales. Tanto la Conferencia de Naciones Unidas de Río sobre el desarrollo sostenible (1992) como el V Programa de Medio Ambiente de la Unión Europea (1993) o la Carta firmada en Aalboorg de Ciudades y Pueblos por la Sostenibilidad (1994) hicieron hincapié en el principio de corresponsabilidad. En todos estos foros, tras reconocer que estamos en una crisis socioambiental, se plantea que avanzar hacia unos nuevos modelos de desarrollo sólo será posible con la participación de los diferentes sectores de población. Ello ha dado lugar a que el término *participación* se haya incorporado a todos los discursos, y a que, si bien se ha legalizado su acción a través de la creación de reglamentos de participación, patronatos, consejos sectoriales, etc., quede mucho por hacer en el proceso de legitimar su práctica en el debate de los problemas y la toma de decisiones.

### ¿Qué entendemos por participación?

De una forma simple podríamos decir que, cuando se demanda participación, se hace para que se cuente con nuestra opinión en la toma de decisiones públicas. Pero



ante esta idea habría que preguntarse: ¿la opinión de quién? y ¿el contar con la opinión de un colectivo, de una asociación, garantiza que la decisión tomada sea positiva desde el punto de vista ambiental y social? Por citar algunos ejemplos sobre los que reflexionar, podemos considerar los Consejos Sectoriales, mecanismos de participación que se han extendido en nuestro país, sobre todo a través del impulso, desde los Ayuntamientos, de las Agendas Locales 21. En estos consejos suele existir una representación amplia de colectivos sociales, así como de la Administración, y su carácter es consultivo. ¿Suponen estos mecanismos una garantía de avance en la democracia representativa? Partiendo de que realmente es importante su existencia, es necesario reflexionar sobre los siguientes aspectos:

**Órganos de participación de escaparate**

En frecuentes ocasiones, estos órganos se están configurando como una fórmula de obligado cumplimiento para las administraciones, pero que no está suponiendo un avance en el proceso de toma de decisiones consensuadas. Suele ser habitual que las decisiones importantes sobre crecimiento de la ciudad, modelos de tráfico, etc, no entren ni siquiera en el orden del día de estos órganos de participación. Se corre, por tanto, el riesgo de que se conviertan en un escaparate más que en una fórmula real de toma de decisiones compartida.

**Representatividad de los representantes**

Las asociaciones, representadas en estos foros, constituyen hoy en día un sector minoritario de la población, sector que es importante, pero que no siempre representa a la opinión del conjunto de la ciudadanía. Suele también ser frecuente que las personas que acuden a estos órganos de representación lo hagan en muchas ocasiones sin que se haya producido un proceso de debate previo entre sus socios; es decir, puede darse el mismo problema que se critica de los órganos políticos, una representación delegada sin el necesario proceso de debate interno.

No se trata sin embargo de concluir que esto no sirve para nada. Hay que analizar la participación en términos de proceso. Para que exista la posibilidad de invertir la tendencia en la toma de decisiones, tiene que existir el órgano en el que puedan confluir las diferentes opiniones. La creación de estos consejos sectoriales u otros organismos similares es, por tanto, positivo. Habrá que buscar la forma de dotarles de contenido y de operatividad. En relación a la representatividad de los colectivos, pienso que es necesario reflexionar en los siguientes aspectos:

- A pesar de sus deficiencias, es fundamental el papel que juega la minoría permanentemente asociada y activa. No hay que olvidar que, aun con sus limitaciones, los logros sociales o ambientales conseguidos tienen como protagonista a este movimiento organizado, pero hay que admitir las deficiencias actuales y no caer en la autocomplacencia.
- Las formas organizativas de muchas asociaciones son caducas y requieren nuevos modelos que profundicen en sus mecanismos de democracia interna. Hay que contemplar que la participación no se da de forma espontánea, sino que hay que dinamizarla, entendiendo que existen diferentes grados de participar. No se puede pedir a todo el mundo una militancia de héroe.
- Participación de la ciudadanía no organizada: Es importante también impulsar la participación del ciudadano no organizado. En este sentido hay que considerar aspectos como los siguientes:
  - Tiempo a invertir: es importante favorecer espacios o acciones que no exijan mucho tiempo y a través de las cuales pueda obtenerse un resultado satisfactorio, y no la sensación de haber estado *perdiendo el tiempo para nada.*
  - Selección de temáticas: en lugar de dar como única opción espacios en los que se tenga que hablar de muchos temas, favorecer la constitución de grupos o comisiones de trabajo sobre temas diferentes (riberas, contaminación atmosférica, ruidos...), sin que ello impida la confluencia o coordinación siempre que sea preciso.
- Información-formación: la información es imprescindible, pero no suficiente; no hay que olvidar que el posicionamiento de la población hacia los temas se construye día a día en la interacción grupal. Hay que tener en cuenta que el que una solución sea negociada con los implicados no quiere decir que sea la que mejores resultados suponga desde el punto de vista social o ambiental. Habrá, por tanto, que favorecer la formación y la conversación, ya que las soluciones que una comunidad puede plantear pueden variar a través de un diálogo en el que confluyan diversas propuestas e intereses, y es posible que tras el análisis de sus consecuencias se pueda abrir un abanico de distintas soluciones a los problemas.

En definitiva, avanzar hacia una cultura más participativa supone, en primer lugar, estar convencidos de que todos tenemos algo que aportar, que no pueden gobernar el mundo los intereses económicos de unos pocos y que ello requiere del esfuerzo colectivo de las instituciones, los colectivos organizados socialmente, los medios de comunicación y la ciudadanía en general.






## AZTERKOSTA 2003

Un año más, AZTERKOSTA se pone en marcha con el propósito de impulsar el conocimiento de los ecosistemas ligados a la costa. Para quienes todavía no hayan oído hablar de esta campaña, se trata de recorrer un tramo de costa previamente convenido, recogiendo información sobre los animales y las plantas que habitan las playas, rías o acantilados. Siguiendo un protocolo que facilita la organización, y usando los materiales que ésta aporta, se toman datos sobre los residuos y basuras encontrados, se analiza la calidad del agua, y se elabora un informe sobre estos y otros aspectos como los elementos de valor histórico, su estado de conservación y cualquier otra alteración que se detecte.
Puede participar quien quiera y como quiera: individualmente, como centro de enseñanza, como asociación... Para que los datos se puedan recoger con rigor, es necesario apuntarse en el 902 160 138, o en el correo:
aztertu@ej-gv.es
Envío de datos: antes del 28 de noviembre.
Este año, se han organizado dos salidas para las personas responsables de cada grupo, en las que se ha explicado cómo se trabaja en AZTERKOSTA. Además, la campaña cuenta con un programa específico para Educación Infantil y primer ciclo de Educación Primaria.
Como actividad paralela, se organiza también un concurso de dibujo, fotografía y cuentos, con cuatro categorías para cada tramo de edad: hasta 9 años; de 9 a 12 años; de 12 a 16 años y mayores de 16 años. Asimismo, el CEIDA dispone de una exposición sobre la costa, que se está mostrando en los centros los escolares.

## Diagnóstico de la integración de la educación ambiental en Educación Primaria y Secundaria Obligatoria en la CAPV




Transcurridos unos años desde el reconocimiento de la educación ambiental como línea transversal en nuestro sistema educativo y desde la instauración de los CEIDA como servicio de apoyo a los centros de enseñanza, había llegado el momento de evaluar el alcance de lo realizado y de disponer así de una información fundamental para continuar trabajando de forma eficaz. Este estudio investiga el grado de conocimiento y utilización de las estructuras y materiales que se ponen a disposición de los centros tanto a nivel de dirección, como de profesorado y alumnado, y extrae una serie de conclusiones que invitan a una reflexión sobre el hecho educativo y la práctica diaria.

## Ponencias de las VIII Jornadas de Urdaibai sobre Desarrollo Sostenible: "Movilidad y Transporte"

Estas jornadas se celebraron en noviembre de 2002 en Gernika-Lumo y Bermeo. Además de UNESCO Etxea y el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio ambiente del Gobierno Vasco, organizadores habituales, también tomó parte el Departamento de Transporte y Obras Públicas. El volumen recoge las ponencias inaugurales, cuatro ponencias–marco y 33 comunicaciones. Un material muy interesante para conocer experiencias, cuestiones técnicas y posiciones políticas sobre un importante tema del debate ambiental.




## Talleres de jardinería en maceta. Centro de Estudios Ambientales de Gasteiz

Los talleres se desarrollarán en las huertas de Olarizu, situadas en el extremo final del paseo del Campo de los Palacios, y en la Casa de la Dehesa de Olarizu.
Los talleres de jardinería en maceta constituyen una interesante posibilidad para aprender a cultivar flores, plantas leñosas de jardín y plantas útiles en un entorno natural al aire libre. Lunes y miércoles: dos turnos: de 10:00 a 11:30 y de 16:00 a 17:30. Duración: 20 días. Tarifa: 28,98 euros en concepto de matrícula. Parados/as, prejubilados/as y mayores de 65 años: 14,49 euros.
Para apuntarse sólo hay que llamar al teléfono 945 162 696 o pasar por la casa de la Dehesa de Olarizu, de 09:30 a 13:30 horas de lunes a viernes. Plazos de inscripción: Taller de octubre a diciembre: del 23 de septiembre al 10 de octubre. Taller de enero a marzo: del 15 al 19 de diciembre, y del 7 al 16 de enero. Taller de mayo a julio: del 5 al 30 de abril.

## Disponible, a través de la web, la guía para el cálculo de los indicadores de Agenda Local 21

Ya se puede consultar, en formato html, la guía metodológica para el cálculo de indicadores de sostenibilidad local en la CAPV, que recoge los 12 indicadores de sostenibilidad local comunes para todos los municipios vascos, teniendo en cuenta los indicadores internacionales. Para cada indicador se recogen los siguientes apartados: definición, relación con los objetivos y compromisos de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 y del plan de acción de cada municipio, aspectos técnicos (unidad de medida, periodicidad, dificultad de cálculo, tendencia deseable y relevancia), una representación gráfica junto al análisis de los resultados y el método de cálculo.

## kontu kontari




*De izquierda a derecha: Asun Fernández (CEIDA), Sabin Intxaurraga (Consejero de Medio Ambiente), Anjeles Iztueta (Consejera de Educación), Sira Ayarza (Directora del IES Mungia BHI) y Olatz Peón (Técnico de medio ambiente del Ayuntamiento de Tolosa).*

**PRESENTACIÓN PÚBLICA DE LA AGENDA 21 ESCOLAR** El pasado 29 de septiembre se presentó públicamente el documento clave para entender la educación ambiental: La Agenda 21 Escolar. Gracias a este ambicioso proyecto, la educación ambiental pasa de ser una materia a conformarse como una actitud y, por tanto, una definición del centro de enseñanza como un ente que participa de la realidad social circundante. La Agenda 21 Escolar conjuga el compromiso social con una actitud educativa profundamente innovadora y moderna, en la que la participación ocupa un lugar destacado.

**LA CAPV DUPLICARÁ ESTE AÑO LA CAPACIDAD DE ENERGÍA SOLAR** El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco ha renovado el convenio que mantenía con el Ente Vasco de la Energía para la colocación de 60 instalaciones fotovoltaicas en 27 centros de enseñanza. La renovación del convenio se hizo pública durante la inauguración de las instalaciones solares del Instituto de Formación Profesional Ategorri-Tartanga, de Erandio.

**UN ESTUDIO PRUEBA QUE LOS TRANSGÉNICOS PROVOCAN GRAVES DAÑOS AMBIENTALES** La revista británica *Philosophical Transactions of the Royal Society* ha publicado un estudio encargado por el gobierno de aquel país en el que se llega a la conclusión de que dos de los tres cultivos modificados genéticamente (la colza y la remolacha azucarera) dañan las plantas convencionales y los insectos. Este estudio comenzó en 1999, y estas son sus primeras conclusiones, pero la investigación sobre las consecuencias de los organismos modificados genéticamente continuará en el futuro.

**REPRESENTANTES DE LOS CONSEJOS DE LOS NIÑOS DE GALAPAGAR Y EL PRAT DE LLOBREGAT EXPUSIERON SU VISIÓN SOBRE LAS CIUDADES** Los pasados días 16, 17 y 18 de octubre, tuvo lugar en La Casa Encendida de Madrid (www.lacasaencendida.com) el III Encuentro sobre La Ciudad de los Niños. Bajo el lema *Infancia y ciudad*, se desarrollaron conferencias en las que se contó con especialistas en urbanismo y sociología de la talla de Jordi Borja (Universidad de Barcelona), José A. Corraliza (Universidad Autónoma de Madrid), o Enrique Gil Calvo (Universidad Complutense). Entre las personas que participaron en los talleres, destacan Francesco Tonucci (que también hizo la presentación de su libro *Cuando los niños dicen ¡basta!*), Hilda Weissmann o Pepa Franco. Para cerrar los actos, niños y niñas de los Consejos de los Niños de Galapagar y El Prat de Llobregat, expusieron sus reivindicaciones: unas ciudades más habitables para la infancia.




*Toki arazoak direla eta, IHITZAk beretzat gordetzen du jasotzen dituen gutunak osorik ez argitaratzeko eskubidea. Makinaz idatziriko 30 lerrotik beherako testuak bidaltzea erregutzen dizuegu. Gutunetan egilearen sinadura, beraren datuak eta harremanetarako telefono zenbaki bat jarri behar dira. Ez zaio inori egileen telefono zenbakirik ez helbiderik emango.*




*IHITZA se reserva, por motivos de espacio, el derecho de no publicar íntegramente las cartas que se reciban. Se recomienda que no excedan las 30 líneas mecanografiadas. Las cartas deben estar firmadas e incluir los datos de quien escribe y un teléfono de contacto. No se facilitarán teléfonos ni direcciones de los/as autores/as.*

## Urritxe-Zornotzan ur laginen analisia egin dugu

Urritxe-Zornotzako Bigarren Hezkuntza Institutuan Ingurune Hezkuntza Proiektuan ur laginen analisia burutu genuen 2002-03 ikasturtean. Aurreikusten genituen helburuen artean honako hauek azpimarratzen genituen helburu



*Urritxe-Zornotza BHIko laborategia, uraren analisia egiteko atazan.*

orokor modura, besteak beste: pertsonei lagundu inguruneaz eta honek daroazan arazoetaz arduratzen, pertsona edo giza talde guztiak ingurunearen ezagupen orokor bat izaten bultzatzea, honek daroan arlo kritikoa indartuz; eta hezkuntza–sistemak bereganatzen ez dituen hainbat arlo (nahiz eta askotan arlo

desberdinetan ikutuak izan) curriculumera barneratzea. Aipatu behar dugu helburuak gaindituak izan direla, zeren ikaslegoak parte–hartze jatorra erakutsi baitu antolatu diren ekintza guztietan. Honako edukiak landu genituen: segurtasun eta higiene arauak laborategian; tresnak eta materialak; magnitude fisiko–kimikoak; oinarrizko eragiketak eta prozesuak: nahasketa baten osagaien bereizketa, iragazpena eta zentrifugazioa, lehorketa eta kaltzinazioa, distilazioa, erauzketa, kristalizazioa; analisi kimiko orokorra: laginak hartu, analisi kualitatiboa, analisi kuantitatiboa (neutraltzea, hauspeatzea, oxidazio-erredukzioa); analisi instrumentala: metodo elektrikoak (potentziometria, eroalemetria, oximetria...).





*Goian, hondakin-uren araztegira egindako bisitaldiko une bat. Behean, laborategian lanean.*

## Energia berriztagarriak aztertu ditugu Arratiako B.H.I.-an

Energi ekoizpen mota ezberdinen inguruko oinarrizko ezagutza bereganatzea izan dugu



*Irudian, Arratiako Institutuko ikasleek eraikitako tramankuluetako batzuk ikus daitezke. Aurrez aurre, ura Eguzkiaren energiaren bidez berotzeko gailua. Eskuinean, pelton turtukia.*

helburuetariko bat Arratiako B.H.I-an. Horrez gain, ekoizpen eta kontsumo ereduen inguruko hausnarketa eta kontzientzia kritikoa bultzatu dugu.

Hiru energia berriztagarrien (hidraulikoa, eolikoa eta eguzki–energia) oinarrizko ezaugarriak aztertu nahi izan ditugu; ezagutza horiek klase mailan proiektu zehatzetan praktikan jartzeko beharrezko teknikak jorratu ditugu.

Honako aktibitate hauek landu ditugu: gaiaren aurkezpena (bideoen laguntzaz); energia hidrauliko, eoliko eta eguzki–energiaren ezaugarrien azterkerta (txosten baten bidez eta kontzeptuak finkatzeko asmoz).

Proposatutako bost proiektuak gauzatu ditugu tailerrean: eguzki berogailua, pelton turtukia, savonius errotorea, multipala errota, anemometroa.

Datorren ikasturterako (2003-2004) aukerako irakasgai berri bat eskainiko da DBH 4.ean: *Energia Berriztagarrien Tailerra*. Ikasleek energi mota ezberdinen inguruko oinarrizko kontzeptuak ulertu eta gaur egungo eredu energetikoaren inguruko kontzientzia kritikoa garatu duten ala ez aztertu dugu.

Era berean, ikasleek proiektu ezberdinak garatzeko beharrezko trebetasunak (elektrizitatea,



*"Bizikletero" multipala haize-errota horren ezaugarri estetikoek apaingarri bihurtzen dute.*

iturgintza, zurgintza) landu dituztenentz ebaluatu dugu.

Ikasle talde honek gaiarekiko interesa erakutsi du; energiaren inguruko klaseko eztabaidetan parte-hartzea handia izan da, eta gaiaren garrantziaz jabetu direlakoan gaude.

# bitakora kaiera

## Nola ezarri Tokiko Agenda 21

**Tokiko Agenda 21 deritzon prozesua abian da dagoeneko, gure herri eta hiri gehienetan. Bere helburua tokian tokiko jasangarritasuna hobetzen saiatzea da, ingurumen-adierazle jakin batzuetan oinarrituta. Udalerri bakoitzean, teknikarien, administrazioaren eta biztanleriaren arteko informazio-emanaren eta motibazioaren araberako jarduketak garatuko dira; beraz, parte-hartzea, alderdi garrantzitsua ez ezik, toki-jasangarritasunari eusten dion filosofiaren beraren atal da.**

### AURRETIKO FASEA: MOTIBAZIOA

Udal politikari eta teknikariek Tokiko Agenda 21a zer den ondo ezagutzea, eta udalerrian garatzeko beharrezkoa izango duten motibazioa lortzea.
Udalaren prestakuntza teknikoa >>> Udalaren konpromisoa eta gidaritza >>> Udala Aalborg-eko Gutunari atxikitzea.

### 1. FASEA: PROZESUA PLANIFIKATZEA

### 2. FASEA: INGURUMEN, EKONOMIA ETA GIZARTE DIAGNOSTIKOA

**INFORMAZIOA BILTZEA: UDALERRIA ZEHATZ EZAGUTZEA**

Udalerriari buruzko informazioa bilatzea. "Landa lana".
Udalerriari buruzko datuen bankua sortzea.

Elkarrizketa pertsonalak.
Inkestak biztanleei.
Herritarrei dei egitea parte hartzeko.

**DIAGNOSTIKOA ETA EBALUAZIOA**

Udalerriaren egungo egoera aztertu eta aurrediagnostiko teknikoa egitea.
Herritarrek udalerriaren diagnostikoa egitea.
Ebaluazioaren ondoren azken diagnostikoa osatzea.
Jasangarritasun adierazleak.

HERRITARREN FOROA
Ekonomia eta gizarte arloetako tokiko agenteak aukeratzea.
Herritarrek, oro har, parte-hartzea.

### 3. FASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA

TOKIKO EKINTZA PLANA: EKINTZEN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planaren edukia zehaztea.
Ekintzen programa.
Lehentasunezko ekintzak.
Komunikazioa: herritarrei ezagutzera ematea; alegazioak egitea.
Tokiko Agenda 21ari buruzko Adierazpena: Udalaren konpromisoa.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA
Herritarrak. Komunikabideak.

HELBURUAK ETA EKINTZA–ILDO ESTRATEGIKOAK

Helburuak eta ekintza-ildo estrategikoak zehaztea.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA
Eztabaida.

### 4. FASEA: GAUZATZEA

Lehentasunezko ekintzak gauzatzeko programa.
Komunikazioa: herritarrei ezagutzera ematea.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA
Herritarrak.
Komunikabideak.

### 5. FASEA: KONTROLA

Jarraipena / kontrola: jasangarritasun adierazleen, elkarrizketa pertsonalen eta kudeaketa–adierazleen bidez.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO FOROA
Herritarrak.
Komunikabideak.

**ATZERAELIKADURA**

☐ Lanerako eskema.
☐ Jendearen parte-hartzea.

**Iturria: Tokiko Agenda 21 Euskadiko udalerrietan ezartzeko eta garatzeko gida praktikoa.** Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Gasteiz, 2000. www.ingurumena.net/Euskara/Sostlocal/al21/documentos.htm

# Serantes mendiaren itzalpean, partaidetzan bikain ingurumenaren onuretan



## Zuhaitzaren egunaren ospakizunetan Santurtzin

***"Paisaiaren sudurra hozten duenean, eguneroko erlojua gelditzen denean...". Pintzelo maskotaren bertsoak dira. Pintzelo maskotak aholkatzen ditu ekologia eta ingurumen gaietan Santurtziko Serantes Ikastetxeko 140 ikasle, 20 irakasle eta gurasoak. Eta ondo baino hobeto egiten duela ematen du; izan ere, sari guztiak jasotzeko paradan jarri baitu Serantes mendiaren itzalpean kokatzen den ikastetxea: "Pintzelo gure ingurumen kontzientzia da", diote Seranteseko arduradunek.***



2001/2004ko Ingurumen Kalitatezko Ikastetxea izateaz gain, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza berriztatzeko proiektuentzat urtero ematen duen *Karmele Alzueta* saria jaso dute. Partaidetzaren inguruan eraiki dute jasotako sariaren sustraia; informazioari eta komunikazioari ematen diete lehentasuna, *Boletin*

*Berdea: Familiak* izeneko argitalpenean. Proiektuon berri testigantza zuzena izan nahian Kabiezeseko (Santurtziko auzoa) Emilia Zuza Ikastetxean ospatutako Zuhaitzaren Egunean egon ginen ikasle eta irakasleekin, zuhaitz birlandatu baten itzalpean.

*Gelako lanetan papera birziklatzen dugu, auzoa hobetzeko ideiak emateaz gainera. Ikastetxea askoz ere garbiago dago eta politago,* esaten du hamabi urteko Janire Cabezasek, zuhaitz jaio berriek izan ohi duten xalotasuna erakutsiaz. Janireren antzera, 25 bat ikasle etorri dira udaberriko egun euritsu baten, Zuhaitzaren Egunerako prestatutako ekitaldietan parte hartzera.



Talde animoso horrek Zuhaitzaren Egunari buruzko bere eslogan propioak daramatza soinean. JOSÉ MARI MARTÍNEZ

Odeiertz Sanabria ikaslea jakitun dago Eusko Jaurlaritzatik jasotako sariaz. Zuhaitzari lurra botatzen ari dela hitz egiten du. *Oso ondo ikusten dut, merezi dugu. Matematikako ikasgaian, adibidez, paper zatiak bildu eta berton egiten ditugu ariketak,* dio, arineketan. Maite Markina irakaslearen ustetan, kontzientziazko lana izan da zailena. *Aldez aurretik gauza pilo bat landu behar duzu; partaidetza lantzen dugunez, bakoitzaren ardurak oso inportanteak dira; bikoteka egiten dituzte: landareak zaindu edo iturriak jagon, argiak itzali, gelara sartzen den argia kontrolatu*, laburbiltzen du minutu pare baten urte osoan egindako lan isila bezain sakona.

## Patruila Berdea

Ikasturtean zehar Patruila Berdea osatu zen ikastetxean; eskola kanpotik zein barrutik ondo zainduta egoteaz arduratzen da. Urtzaro Irastorza 11 urteko ikasleari arauak zaintzea egokitu zaio aste honetan, eta horrelaxe laburtzen du betebeharra: *Norbaiti gauza bat ahazten zaionean, ohartarazi egiten diogu: materiala, etxeko lana, gainontzekoak errespetatzea, esaterako*, argitzen du. *Gauzak hobeto erabiltzen ikasi dut gelan; orain etxean gehiago birziklatzen dut.*



*Ekosistena baten azterketa, maketa bat erabiliz.*



*Patrulia Berdea buru-belarri lanean, taldeko lana indartuz.*



*Azken hiru ikasturteetan zehar, kanpoan egindako lana izan da aktibitateen ardatz nagusia. Irudian ikasleek apunteak hartzen.* SERANTES IKASTETXEA

Maite Markina irakasleak ikasleek asmatutako arauak direla azpimarratzen du. *Eurok ikasleok idatzi zituzten arauok; hori da aipagarriena. Partaidetza bultzatzen da, gero euren eguneroko bizitzan egin dezaten*, zehazten du. Zuhaitz jaio berriaren itzalpean uzten dugu taldea, ondo egindako lanak sorrarazten duen irribarrea aurpegian dutela; zuhaitz horren hostoak bezala, partaidetzaren eskuak lau haizetara zabalduko dira Serantes mendiaren itzalaren babesean.

# "Ikasgelako eguneroko lantxoak ohitura bihurtuz, ikasleek barneratu egiten dute naturarekiko errespetua"

**Jose Manuel Etxebarria**
Serantes Ikastetxeko ingurumen arloaren koordinatzailea.



*Jose Manuel Etxebarriak hezkuntza-proiektu asko ditu gogoan.*

Eusko Jaurlaritzaren Karmele Alzueta saria jaso duen egitasmoaren ardatza dugu Txeba ezizenaz ezaguna den irakaslea. Bere denbora libreari eta borondateari zor zaizkio, neurri handi batean, sariaren dirdirak. Ingurumenaren arloaz arduratzeko irakasleak *liberatzea* aurreikusten du etorkizunean bete beharreko erronka.

**Azaldu itzazu proiektuaren ildo nagusiak.**
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Hezkuntza Sailek esperientzia berezia eratu nahi zuten zenbait ikastetxerekin. EAEko lurralde bakoitzeko ikastetxe bat izendatu zuten etorkizunari begira eredu izan daitezen, ingurumen arloan. Aurkeztu egin ginen; 2000/01 ikasturtean ingurumen arloan garatutako lana genuen atzetik. Aukeratu egin gintuzten, eta CEIDA-ren eta EHU/UPVren laguntzarekin ikastetxe hirukotearen parte bilakatu ginen.

**Proiektura etorrita, partaidetza hitz potoloa da; nola laburtuko zenuke?**
Gauza asko biltzen dira proiektuan. Baina laburbilduta esateko, gure ikaslegoaren hezkuntza ereduan birziklapena eta naturarekiko errespetua garatzea da helburu nagusia, ikasleei barrutik ateratzea errespetu hau hezkuntza zikloak amaitzerakoan. Proiektuan, bestalde, modulu ezberdinak lantzen ditugu: gurasoei, irakasleei zein auzoari zuzendutakoak.

**Helburu asko dira; nola mamitu zen prozesua?**
Argi geneukan eragile guztien partaidetza behar genuela; aurrera egin nahi bagenuen, nabarituko ziren gauzak egin behar genituela, eta, azkenik, ezjakintasunak ezin gintuela geldiarazi. Gela–lanak ezarri ziren modulu bezala; ingurumenarekin lotutako gauza txikietan ikasleek erantzukizuna hartzea dute helburu; ohitura bihurtzen dituzte: landareak garbitu, laneko materiala antolatu, gelako argia zaindu pertsianak jaitsita edo altxatuta, argiak itzali eta abar. Gela bakoitzean taldeka antolatzen dira ikasleak lanak betetzeko; txandatu egiten dira lan guztietan.

*"Ikasleek eta gurasoek konpromisoa sinatuko dute, ingurumenari errespetuzko jarrerarekin begiratzeko"*

**Nola pizten da gurasoen partaidetza?**
Komunikazioa izeneko moduluan sartzen da arlo hau. Ikastetxeak ez zeukan proiekzio askorik kanpora begira. Geure burua ezagutarazi nahi genuen; lehendabizi gurasoei zuzendu gintzaizkien. *Boletin Berdea Familiak* aldizkaria argitaratzen dugu. Azken finean ikastetxearen izaera aldatu

## Beste esperientzia interesgarri batzuk

### Artatse, hezkuntza elkartea

Bilboko Artatse Ikastegia Otxarkoaga eta Txurdinaga auzoen artean kokatuta dago, eta hezkuntza elkartetzat jotzen du bere burua. 1996/97 ikasturtetik hona garatzen ari diren proiektuak helburu hauek ditu: animalien eta landareen aldeko jarrerak sustatzea, eskolan papera birziklatzeko ohitura sortzea eta erantzukizunean oinarritutako jarrerak eta heldutasun afektiboa eraikitzea. Ikasturte hasieran Ingurumen Batzordea osatzen dute; pintura lehiaketa baten bidez proiektuaren maskota aukeratzen dute; arrain-



*Ingurumena zaindu beharraren kontzientzia hedatuz joan da Artatseko ikasleen artean.*



nahi izan dugu. Ikasturtero lau boletin kaleratzen ditugu: ingurumenarekin lotutako berriak agertzen dira. Azken zenbakian, esaterako, lauzpabost hazi banatu ditugu familia bakoitzeko, Zuhaitzaren Egunean etxeetan erein ditzaten eta, gero, sortutako landareak basoren baten birlanda ditzaten. Horrez gainera, hitzaldiak eratu ditugu gurasoentzako: aurten Tokiko Agenda 21i buruzkoa izan da; eta komunikazioarekin jarraituz, web orrialde bat ere sortu dugu:

gaztenet.com/serantes

**Etorkizunari begira, proiekturik?**

Burutzeke dago oraindik, baina Lurraren Kontratua sinatzearen ideia darabilgu buruan; ikasleek eta gurasoek konpromisoa sinatuko dute, ingurumenari errespetuzko jarrerarekin begiratzeko: ura



*Ikasleek, hondakinen birziklapenaz kezkatzen badira ere, mendira joan eta zuhaitzak landatzea dute gogokoena.*

neurriz erabiltzea, energia aurreztea, kontsumoa murriztea eta abar izango dira konpromiso nagusiak. Murrizketa izango da kontratuaren ardatza.

**Kontratua aipatzen duzula, behartutako edo bultzatutako partaidetza sustatu beharra dago, jendeak parte har dezan?**

Ikasleak eta irakasleak oso konzientziatuta egon arren, ekimenak irla modura gelditzeko arriskua zegoen ikastetxetik kanpo. Gurasoak dinamika honetan murgildu nahi genituen; zentzu honetan erabili ditugu boletinak. Jakin badakigu ez dela erraza. Serantes auzora irekitzea izan da gure asmoa; ikasleek, esaterako, auzoaren ingurumen egoera aztertu dute.



ontziak, lorontzi-euskarriak, papera birziklatzeko ontzia... dituzte geletan, eta zenbait dortoka; ikastetxean hazitako kanarioak zaintzen dituzte guztien artean; atezainak arduratzen dira antzarren janariaz; landareak ikastetxeko espazio komunetan daude eta ikastalde bakoitzak zonalde bat zaintzen du. Aurten loradegian kameliak, errododendroak, tulak eta txilarra landatu dituzte; gerizondoak zaintzeaz gainera, papera birziklatzen dute, besteak beste. *Ingurumen Heziketako egitasmo hau ikastetxearen curriculumean txertatzen da, ziklo bakoitzari egokituta*, azaltzen du Ines Gonzalezek, proiektu arduradun eta ikasketa buruak. Oso positibotzat jotzen du proiektua, *ikasleriak interes handia erakusten du: papera birziklatzeko ohiturak sortzen dira; horrezaz gainera oso gustukoa dute lorategia; eta dauzkagun animaliek motibatu egiten dituzte.*

## Lardizabal: ingurumena, guztion erantzukizuna

Zaldibiako Lardizabal Herri Eskolan, ingurumen hobeago baten alde lanean ari direla, partaidetzak eguneroko jardunean duen garrantziaz ohartu dira. Esaterako, aurten ura



*Gero eta gehiago dira seme-alaben ingurumen-hezkuntzaz baliatuz familiak inplikarazten eta kontzientziatzen saiatzen diren ikastetxeak.*

erabiltzeko ohiturei buruzko galdeketa bidali diete gurasoei, eta guztien erantzuna jaso dute.

Prozedura finkoa erabiltzen dute: ingurumenarekiko kontaktua eragin, informazioa bildu, ikasleen ezagutzak landu taldeetan, taldeka eztabaidatu, Batzorde Pedagogikoan parte hartu, lana gelaz gela ebaluatu, emaitzak ikastetxeko aldizkarian argitaratu, iragarkiak jarri herrian, Eskola Kontseiluari eta Udalaren ingurumen sailari berri eman. Ikasleek asanblada eratzen dute, gaiak aztertzeko.

# Ikasleen parte-hartzea ikastetxean

**Ekoauditoretzaren** erabilgarritasunak ez ditu bakarrik baliabideekin edo inguru fisikoarekin lotutako gaiak hartzen; metodologia, ikasketa-proiektuaren berrikuntza edo orain mintzagai duguna, parte-hartzea, aztertzeko ere balio dezake eta.

Gaiak planteatuta, inkesta sinpleen bidez, informazioa bildu, iritziak adierazi eta beste hainbat gauza egin dezakegu.



## Ikasleen parte-hartzeari buruzko galdera-sorta

Galderei erantzutean, gogoan izan 1. aukerak ez zaudela batere ados adierazten duela, eta 5.ak, erabat ados zaudela.

### Gure ikastetxean

Helduek proposatzen dizkiguten jarduerak baino ez ditugu egiten:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Helduek iritzia eskatzen digute, egingo diren jarduerak prestatzeko:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Bururatzen zaigun guztian parte har dezagun proposatzen digute, eta jaramon egiten digute:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Guk proposamenak egin eta eurek onartu egiten dituzte:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Proposamen berriak egin arren, inoiz ez edo oso gutxitan onartzen dizkigute:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Entzun egiten digutela uste dugu:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

### Ikastetxeko jaiak antolatzean

Batez ere, irakasleek hartzen dute parte:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Ikasleok ere hartzen dugu parte:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Gurasoek ere hartu ohi dute parte:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Ikastetxeko beste pertsona batzuek ere hartzen dute parte (sukaldariek, jantokiko begiraleek, atezainak...):

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐



Herriko edo auzoko beste pertsona batzuek ere hartzen dute parte (animatzaileek, aisia-taldeak, udaletxeko pertsonek...):

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

### Irteerak

Ikasturtean zehar egiten diren jardueren artean, irteera ugari egoten dira:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Aipatu aurreko ikasturtean bisitatu dituzuen lekuak; esan zein gustatu zaizun gehien, eta zergatik:

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

________________________________________

Leku berri bat ezagutzera goazenean, joan baino lehen jasotzen dugu berari buruzko informazioa:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Irteeraren ostean, ondorioak atera eta proposamenak egiten ditugu:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

Aintzat hartzen dute gure iritzia, hurrengo irteeretan zein leku bisitatuko ditugun erabakitzeko:

**1** ☐ **2** ☐ **3** ☐ **4** ☐ **5** ☐

# Txio-txio

## HELBURUAK

- Modu jostagarri batez, besteak aurkitzen eta elkarri entzuten saiatzea.
- Gure emozioei eustea eta taldeari egokitzea.

## MATERIALAK

- Begiak estaltzeko zapiak (ilerako zinta zabalak erabil daitezke).

## Jolasaren garapena



1. Hezitzaileak *ama* aukeratuko du, beste taldekideek nor den jakin gabe: —*Zeu izango zara oilo ama*—, esango diogu belarrira, guztiek begiak estalita dauzkatela.

2. Beste guztiak txitak izango dira, eta ikasgelan zehar ibiliko dira amaren eskuaren bila.

3. Txita batek beste bat topatzen duenean, eskua hartu eta hauxe galdetuko dio: —*Txio-txio?* Beste pertsona ere txita bada, —*Txio-txio!* erantzungo dio, eta, orduan, eskua askatu eta oilo amaren bila segituko dute.

4. Oilo ama da erantzun behar ez duen bakarra, eta txita guztiei eskainiko die eskua. Beraz, *txio--txio* esan eta erantzunik jaso ezean, huraxe da ama; orduan, eskutik heldu eta oilo amaren taldean geratuko gara.

5. Kide bakoitza, oilo amaren taldeko baten eskua hartu eta erantzunik hartzen ez duenean erantsiko zaio talde horri, eskutik helduz.

Oiloen taldea handiagotu ahala, txitak gero eta gutxiago izango dira, eta, beraz, isiltasuna, gero eta handiagoa.

Jolasa inor entzuten ez denean amaitzen da. Une horretan, guztiok egongo gara eskutik helduta, iribarretsu eta jolastu bitartean gertatu den guztiaz hitz egiteko gogotsu. Gero, pozago egongo gara jolasari, lanari edo beste edozeri heltzeko.

**Iturria:**
GARAIGORDOBIL, Maite: **Juego cooperativo y socialización en el aula. Un programa de juego amistoso, de ayuda y cooperación para el desarrollo socio-afectivo en niños de 6 a 8 años.** Seco Olea Ediciones. Madril.

# Hauxe nahaspila!

## HELBURUAK

- Sistema edo ekosistema baten osagaien arteko elkarrekintzaren ideia indartzea.
- Zerbait egiteko, taldean parte hartzearen esanahiaz jabetzea.

## MATERIALAK

- Artile-harila.

### Gai honekin zerikusia duten arloak

- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera.
- Lengoaia.
- Hizkuntza.
- Tutoretza.

## Jardueraren garapena

Ikasleak, ahal dela, 8 lagunetik beherako taldeetan antolatuko dira, eta jolastokira, lorategira edo ikastetxetik hurbil dagoen beste leku egoki batera irtengo gara. Lurrean jesarriko gara, borobil handi bat eginez. Taldekide bakoitzak parkeko elementuren bat aukeratuko du ezaugarritzat: aulkia, txoria, zabua, euria, katua, papera...

Gero, taldekide bakoitzak beste batekiko lotura eratuko du, artilearen muturrari eutsiz eta harila kide horri botaz, esaldi batez erlazioa azaltzen duela.

Esaterako: txoriak zuhaitzean egiten du habia; umea zabuan dabil jolasean; paperak paperontzian egon behar du.

Jolasa garatu ahala, taldekide guztien arteko erlazioen sarea ehotuko da.

Dinamika bera erabil daiteke elikadura-katearen funtzionamendua azaltzeko —ume bakoitza ekosistemako izaki bizidun bat izango da.



# Zer egingo zenuke orube honetan?

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- Ingurune natural eta sozialaren ezaguera.
- Lengoaia.
- Hizkuntza.
- Tutoretza.

**HELBURUAK**

- Ikasleengan, entzuteko jarrera sustatzea.
- Ikasgelako kide guzti-guztien parte-hartzea bultzatzea.
- Ikaskideen gustuak, lehentasunak eta beharrak ezagutzen saiatzea.

**MATERIALAK**

- Marrazteko materiala, eta elementuak ebaki eta itsasteko papera.
- Artaziak, kola.

## Jarduera, urratsez urrats

Taldekideak binaka jesarriko dira, aurrez aurre, mahai baten inguruan.

Zuhaitz bat eta txabola kalamastra bat baino ez dituen orube baten irudiaren kopiak banatuko dizkiegu.

Banaka, itxurazko orube horretan, gustura egoteko beharko lituzketen hamar gauza pentsatuko dituzte, eta eman zaien kopiaren gainean marrazten saiatuko dira (adibidez, landareak, barazkiak edota zuhaitzak; habiak egiteko kaxak...). Irakasleak baloratuko du argibide horiek eman ala inolako baldintzarik ez ezartzearen komenigarritasuna.

Guztiek euren hamar gauzak aukeratuta, nork bere bikotekideari azaldu edota deskribatu beharko dizkio, baina bikotekideak ezin izango du ezer esan, arretaz entzun baino. Gero, paperak trukatuko dituzte, bikotekideari norberaren lekua bisitatzera gonbidatuz. Ondoren, launa pertsonako (bina bikoteko) taldeak egingo ditugu, eta bakoitzak bere bikoitekidearen leku ideiala nolakoa den deskribatu eta horren gustuak, lehentasunak, interesak eta abar azalduko dizkie gainerakoei.



**Oharra:**
Osagarritzat honako ipuin hau irakurtzea gomendatzen dugu: ***El misterio de la huerta de los membrillos*** (Espainiako ingurumen-hezkuntzaren Liburu Zurian oinarritua). Ingurumen Ministerioa. Madril, 1999.

# Makina bat piezaz pieza

## HELBURUAK

- Osotasuna ondo ibiltzeko, atal guzti-guztien lankidetza behar delako ideia sustatzea.
- Ikasleengan, jarrera aktiboak piztea.

## MATERIALAK

- Materialak antzeztu nahi den makina motaren araberakoak izango dira.

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- TUTORETZA.

## Jardueraren garapena

Ariketa makina bat eraikitzean eta abian jartzean datza —engranaje nagusia gorputza izango da—. Hasteko, irakasleak argi azaldu beharko die ikasleei, eraikiko duten makina ibil dadin, pertsona guztiak ezinbestekoak direla.

Gero, ikasleak taldeka antolatuko dira, zein makina antzeztuko duten erabakitzeko.

Hona hemen adibide bat, proposatzen ari garena hobeto uler dezazuen:

Talde batek ordenagailua izango dela erabakiz gero, taldekide bakoitza aparatu horren funtsezko atal bat izango da. Bata pantaila izango da, beste bat teklatua, beste bat sagua, bi kide bozgorailuak izango dira, besteren bat modema izan daiteke...



Nahi beste osagai erantsi ahal zaizkio. Ez du derrigor ordenagailu arrunten modukoa izan behar: zuen irudimenaren menpe dago oraindik merkatuan patentatu ez den tramankuluren bat asmatzea. Pertsona bakoitzak antzezten duen piezaren arabera, soinuak ere egin ditzakezue. Aparatu guztiak antzeztu ostean, hezitzaileak honelako galderak egingo dizkie taldeei: zergatik aukeratu duten makina hori; nola sentitu den bakoitza taldeari egindako ekarpenarekin; eta abar.

**Iturria:**
Seminario de Educación para la Paz. Asociación Pro Derechos Humanos. **La alternativa del juego II. Juegos y dinámicas de educación para la paz.** Los libros de la Catarata. Madril, 1994.

# Uharte bakartia

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- Gizarte zientziak.
- Hizkuntza.
- Lengoaia.
- Tutoretza.

## HELBURUAK

- Norberak eta besteek erabaki garrantzitsuak hartu behar direnean erakusten dituzten jarreren inguruko gogoeta egitea.
- Taldeko kideen arteko adostasuna bilatzeko interesa sustatzea.
- Gatazkak ebazteko, sormenezko irtenbideak eskaintzen saiatzea.

## MATERIALAK

- Talde bakoitzarentzako txartelak eta mapak.

**Hasteko,** laupabost ikasleko taldeak egingo ditugu, eta bakoitzari uhartearen mapa eta berreskuratutako gauzen zerrenda erakusten dituen orria emango diegu. Talde bakoitzak begirale bat izango du. Hauxe izango da talde guztien antzeztokia:

Itsasontzia hondoratu eta olatuek uharte honetara ekarri zaituztete. *(Hiru minutu dituzte uharteko zein lekutara heldu diren erabakitzeko; gero ezin izango dute aldatu).* Ertzean, baul bat eta ohol batzuk agertu dira.




*Uhartearen eskema.*




*Baularen edukia.*

Leku horretan emango dituzuen hiru asteak planifikatu egin behar dituzue: uhartea esploratu, janaria eta ura bilatu, lana antolatu, babesteko aterpea bilatu, uhartean bizi den tribuarekiko jarrera adostu, egon litezkeen etsaiei nola erantzungo diezuen erabaki... *(20 minutu inguru emango diegu hartutako erabaki eta estrategia guztiak bateratu baino lehen. Gero, ebaluazio moduko bat egingo da; begiraleek eginkizun garrantzitsua izango dute horretan).*

Guztien arteko ebaluaketarako galdekizunak:

- Nola sentitu zarete egoera horretan?
- Nola hartu dituzue erabakiak?
- Zein rol sortu dira, erabaki horien arabera?
- Zelako arazoak sortu dira? Nola zuzendu dituzue?
- Zer hartu duzue etsaitzat zuen taldean?

**Iturria:**
Seminario de Educación para la Paz. Asociación Pro Derechos Humanos. **La alternativa del juego II. Juegos y dinámicas de educación para la paz.** Los libros de la Catarata. Madril, 1994.

# Parkea diseinatu

**Gai honekin zerikusia duten arloak**

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- NATUR ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZA.
- LENGOAIA.
- TUTORETZA.

## HELBURUAK

- Elkarrizketan eta adostasunean funtsatutako jarrera parte-hartzaileak sustatzea.
- Gizarte-talde bakoitzaren beharrizanak hausnartzea.

**HEMEN PROPOSATZEN** dizuegun jardueran, ziklo bereko ikastalde guztiek har dezakete parte aldi berean. Pertsona bakoitzak zein gizarte-kolektibotakoa izan nahi duen aukeratuko du: adinekoak, etxeko andreak, langabeak, ama langileak, langile gazteak, ikasle nerabeak...

Talde bakoitzari eskalan egindako parke baten oinarrizko eskema emango zaio. Eskemak eskaintzen dituen aukerak aztertuta, zuen gizarte-sektorearen beharrak asetzeko moduan antolatu beharko duzue espazioa; horretarako, zuen kolektiboarentzat baliagarritzat hartzen dituzuen elementuak kokatuko dituzue eskeman bertan (edo planoan).

Adostasuna lortu eta zuen proposamena prestatu eta gero, talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du. *Ordezkarien batzarrak* talde bakoitzak adierazitako beharrak eta iritziak aztertu eta parkearen diseinu berria egingo du. Talde bakoitzak egindako proposamenak guztien aurrean irakurriko dira, prozesu osoa amaitutakoan.



**Oharra:**
Herriko edo auzoko benetako espazio mugatu bat ere diseina daiteke, eta, geroago, ikasgelan taxututako proposamenak Udaleko Hirigintza Arlora bidali.





*Parte-hartzeak adierazpide ugari ditu. Zuen ikastetxeak udalerriko hondakin solidoen gestioan parte hartzeko ariketa bat proposatzen dizuegu hemen.*



# Zaramarekin bueltaka

## Behaketa fitxa

Laginketaren eguna: ..........

Biltontzien kokalekua (kalea eta zenbakia): ..........

..........

Biltontzi kopurua: ..........

Biltontzi motak:

☐ Papera ☐ Ontziak ☐ Beira ☐ Gainerako Zarama

Biltontzien egoera: ☐ Beteta ☐ Erdi beteta ☐ Hutsik

Kontserbazio-egoera: ☐ Berriak ☐ Zaharrak ☐ Apurtuta

Badago biltontzietan egon beharko ez lukeen hondakinik? (papera biltontzi urdinetik kanpo; kristala biltontzi berdetik kanpo...):

☐ BAI ☐ EZ




**Auzoko** hondakin-biltontzien egoeraren segimendua egitean datza jarduera: ondo erabiltzen diren ala ez, nola gestionatzen diren, eta abar.

### Lehenengo urratsa: zenbat biltontzi daude auzoan?

Saio bat edo batzuk beharko dituzue zuen auzoko kaleetako biltontzien berri jakiteko. Biltontzien kopuruaren eta gure kontsumo–ohituren arteko erlazioak ezartzen ere saia zaitezkete.

### Bigarren urratsa: hiriko hondakinei buruzko ikerketa

Atal honetan, behar dugun informazioa eman ahal diguten galderak prestatuko ditugu. Galdera sortari fitxaren taxua emango diogu, ikasleei banatu baino lehen. Zenbat eta fitxa gehiago banatu, orduan eta informazio zehatzagoa lortuko dugu geure hiri, herri edo auzoko biltontzien egoerari buruz (beste maila batzuetako ikasleek ere hartu ahal dute parte). Ezkerrean duzue diseinatu ahal duzuen fitxaren adibide bat.



*Materialak birziklatzeko instalazio bat edo zabortegiren bat bisitatzea oso interesgarria da gure inguruan sortzen dugun zaramaren eragina ulertzeko.*

## Hirugarren urratsa: segimendua

Galderei erantzun ondoren, "erne" ibili beharko dugu ikerketa-aldirako (astebete edo hamar egun) egokitu zaizkigun biltontziekin; horretarako, egunero ordu berean jasoko ditugu datuak (onena gauez egitea da, zarama jasotzen duen kamioia igaro baino lehen). Bakoitza bere etxetik edo ikastetxetik hurbilen dauden biltontziez ardura daiteke, segimendua ahalik eta zehatzena izan dadin.

## Laugarren urratsa: nora doa biltontzien edukia?

Ikertu nora doan biltontzi bakoitzaren edukia. Era berean, interesgarria litzateke, besteak beste, zabortegiren bat eta papera birziklatzeko lantegiren bat bisitatzea eta, adibidez, beira birziklatzeko prozesua ikustea.

## Bosgarren urratsa: txosten orokorra

Orain, prest gaude jada honako galdera hauei erantzuteko:




*Zabortegiak ez dira zarama tratatzeko bide jasangarria. Zabortegietan metatu beste xederik ez duten hondakinak ahalik eta gehien murriztu behar dira. Irtenbidea hondakin gutxiago sortzea da.*

- Zein biltontzi betetzen dira arinen? Zergatik?
- Astean zenbat bider jasotzen dute zarama?
- Ondo erabiltzen ditu jendeak biltontziak?
- Aurkitu duzue biltontzi gutxiegi dituen kale edo alderik?

Erantzunekin, txosten orokor bat edo zatikako hainbat txosten presta ditzakezue, eta Udaleko Ingurumen Arlora edo Kontseilura eraman, ikerketa-prozesuan atera dituzuen ondorioak azaltzeko gutun batekin batera, bildu duzuen informazioa zaramaren bilketa-sistema hobetzeko aprobetxa dezaten. Honelako lanetan zeuek erantsi nahi dituzuen aldaera guztiak egin daitezke.

# Humatika Handia
# Makundun uhartearen aurka

**Emenliken uhartedian** dagoen Makundun uharteko biztanleak arazorik eta oinazerik gabe bizi izan dira orain arte. Toconao itsasoak bainatzen duen uhartedi horretako lurra aberatsa eta emankorra izan da beti. Makundundarrak pezozko etxe txikietan bizi dira, eta elikatzeko behar besteko janaria ateratzen dute lurretatik —horregatik, inoiz ez dute aldameneko uharteen laguntzarik behar izan—. Makundun uhartean bizi diren pertsonetako batek ere ez du ez gerrarik ez gatazkarik ezagutu, ezta horien aitona-amonek eta aitona-amonen aitona-amonek ere. Biziki maite dute euren uhartea, eta makunduneraz mintzatzen dira oraindik ere.

Baina zorioneko egun lasaiak desagertzear daude. Makundunetik ehunka kilometrora dagoen Humatika Handia uharteko biztanleek agortu egin dituzte euren baliabide guztiak, eta aireko partikula guzti-guztiak lohitu eta kutsatu dituzte, hura arnasezin bihurtuz. Humatika Handiko lur guztian zehar altxatu dituzte eraikinak, metro koadro bat bera ere libre utzi gabe. Humatikar batzuek euren bizi-erritmoaren eta uharteko kutsadura handiaren ondoriozko gaixotasun larriak nozitzen dituzte. Beraz, Humatika Handiko biztanleriak arrazoi asko ditu etorkizun oparoagoko lurren konkistari ekiteko.

Bi urtean zehar, Makundunen hormigoizko etxebizitzak, golf zelaia eta hondartza pribatua dituzten turismoguneak eta merkataritza–guneak eraikitzeko eta bideak (oraindik lurrezkoak) asfaltatzeko proiektuak aztertu eta prestatu dituzte.

## Rol jolasa

Bi uharteetako biztanleen batzarra antzeztuko duzue.

### Humatika Handia



Alkate anderea — Enpresariak — Bideetako ingeniaria — Emigratu nahi duten familien bozeramailea

### Makundun



Petun agure jakintsua — Nekazarien Makundo Kooperatibako kideak — Emakume Artisauen Tailerraren bozeramailea — Makunduneko gazte eta helduentzako Eskolaren ordezkaria

Lehenbizi, antzeztu nahi duzuen pertsonaia aukeratu eta horren interesak defendatu behar dituzue. Makundundarren alderdiak tinko defendatu beharko du bere uhartea, humatikar *zibilizatuen* inbasiotik; Humatika Handiko taldeak ahal beste trikimailu erabiliko du makundundarrak, oraindik arbasoen ohiturei eutsi beharrean, uhartea *modernizatzeak* dakartzan onura handiez konbentzitzeko.

---

Oraintxe aurkeztu dizuegun jolasa patentatu gabe dago oraindik. Baina horrelakoak ezagutzeko interes berezia baldin baduzue, deitu Bizkairol Federaziora (rol-jolasetan aditua), Borjaren galdez: 606 334 130.

# ¿Es suficiente la educación ambiental?



*Antoni J. Colom*

Catedrático de Pedagogía de la Universidad de las Islas Baleares.



**Recientemente** he repasado una de las publicaciones emanadas de la última Cumbre de la Tierra, que se celebró en agosto de 2002 en Johannesburgo, Sudáfrica. Su lectura es en verdad desalentadora: la protección ambiental retrocede, al mismo tiempo que se sigue primando el crecimiento económico. Los países ricos continúan depredando a unos niveles que sería imposible mantener si todos los habitantes de la tierra lograsen un desarrollo parecido. O sea, en el fondo no permiten tal desarrollo, profundizando entonces, cada vez más, en la injusticia social. O si se quiere decir de otra manera: más de mil millones de habitantes, con su desgaste ambiental, impiden que más de cinco mil millones alcancen unas cotas mínimas de dignidad en su supervivencia, ya que 3.000 millones de ellos, subsisten, por ejemplo, con apenas dos dólares diarios. Mil doscientos millones de personas no tienen agua potable, y cada año mueren dos millones de niños por tal motivo. A todo ello cabe añadir que se espera que para el año 2050 la población de la tierra se duplique, lo que significará contar con una población de 13.500 millones de personas.

Mientras, en estos últimos cincuenta años, los países ricos hemos cuadruplicado las emisiones de dióxido de carbono, responsable del efecto invernadero; cabría recordar, en este sentido, que hace diez años circulaban 600 millones de vehículos a motor, y ahora se han superado ya los mil millones. En cambio, la agricultura sigue empobreciéndose irremediablemente, de tal manera que de los 1.500 millones de hectáreas de tierra productiva disponible, más de seiscientos están ya devastados a causa de una mala y excesiva explotación. Se ha calculado que cada año se está perdiendo el uno por ciento de las superficies boscosas, lo que pone en grave peligro de extinción a múltiples especies animales, de tal manera que hoy tenemos más de 11.000 especies en peligro de desaparición, cuando en 1992 sólo eran cinco mil. Podríamos continuar con las cifras, pero quizás se pueda pensar que es una forma como otra cualquiera de demagogia.

¿Qué hacer ante tal panorama? ¿Sigue siendo válida la educación ambiental? Responderé afirmando que debemos dar un giro importante a lo que entendemos como educación ambiental. Digo esto porque ha llegado, en serio, el momento de actuar; es necesaria una implicación socio-política, sobre todo en los países desarrollados, a favor del ambiente, que es lo mismo que decir a favor de la solidaridad en referencia a los países de economía emergente. Por tanto, en el contexto de la educación ambiental, que es en el que nos movemos, creo sinceramente que debemos incluir, con valentía y decisión, la variante política a nuestras acciones educativo-ambientales.

Hoy, y cada día más, veo necesaria una implicación política de la educación ambiental, lo que implica asentarla entonces en la crítica política, en la ideología, en el rearme moral y en la actuación cívica; una educación ambiental que lleve a la acción, porque cabe recordar que toda actitud política debe promover acción consecuente. Para ello creo que, previamente, la educación ambiental debe implicarse, fundamentalmente, como pedagogía cognitiva. La educación, si quiere no ya modificar actitudes sino lograr una praxis de acción política y cívica, debe cambiar las estructuras de pensamiento; debemos enseñar a pensar diferente, por lo que nuestro trabajo debe ser radicalmente cognitivo. Y ello, a todos los niveles.

Asociaciones de vecinos, entidades sociales, instituciones docentes, centros cívicos, de adultos, de género, de la tercera edad… todos ellos debemos implicarnos, definitivamente, en los desarrollos educativo-ambientales; la educación ambiental no es sólo una cuestión escolar, sino que debe ser un elemento de vital importancia para vertebrar ideológicamente la sociedad. Si como sabemos, se aprecia lo que se conoce, el cambio cognitivo es posible a cualquier edad y circunstancia; basta que se explique cuál es la realidad del planeta; es decir, no se puede estimar lo que no se sabe, aquello que se desconoce, y debemos confesarlo, existe mucho desconocimiento de la situación ambiental. Se utiliza lo *verde*, lo *ecológico,* lo *natural*, en todos los ámbitos de la vida, pero poco se informa de los graves y acuciantes males que dispensamos a nuestra casa común. Por lo tanto, Educación Ambiental sí, pero arraigándola como hacer cognitivo, y expandiéndola, a todos los niveles, como acción política. Nueva cognición y un nuevo rearme ideológico, junto con una actitud cívica comprometida y de oposición a los gobiernos contaminantes y a las políticas liberales salvajes, deben ser faros orientadores para nuestro futuro. La situación en la que nos encontramos, los retrocesos ambientales, las diferencias en las condiciones de vida… exigen de nosotros no sólo una toma de conciencia, sino cambios radicales en el pensar y en el obrar. De ahí que considere que la educación ambiental debe moverse entre la cognición y el compromiso político.

## SARETIK BUELTAKA




Sareratu UNICEFekin
**www.enredate.org**
**UNICEFek elkartasun-kanpainetan parte hartu, webean proposatutako gaiei buruzko iritzia eman, lan-taldeak osatu eta abar nahi duten gazteei zuzenduriko atari bat du Interneten. Jolasen atalak puzzleak, letra-zopak, *Ecomovida*, *Movilízate* eta beste joko asko eskaintzen ditu.**
**Azpimarragarria da burututako kanpainei buruzko informazioa ematen duen atala.**




Kanal solidarioak
**www.canalsolidario.org**
**Elkartasunari, lankidetzari eta munduko bidegabekeriei buruzko informazioa zabaltzen duen web gunea da, eta ekitaldi solidarioen agenda, GKEak (batzuk ezezagun samarrak, baina oso interesgarriak) eta beste sail erakargarri batzuk biltzen ditu.**




Zure esku dago
**www.ingurumena.net**
***Zure esku dago* atalean, honako ikono hauek aurkituko dituzue: Bizi-aniztasuna, Ura, Hondakinak, Energia eta Garraioa. Horrela, erraz ikasiko dugu nola sortu hondakin gutxiago, Tokiko Agenda 21 zer den, zein herritan dagoen indarrean, eta abar.**

## Non ipin dezake bakoitzak bere harri-koskorra?

# EAEko boluntarioen plataformak

**Boluntariotza gizarteko** eginkizunetan parte hartzeko modu garrantzitsua da. Boluntarioak ekintza solidario eta altruistan ematen du bere denboraren zati bat, berak aukeratuta eta trukean ezer hartu gabe. Ezer ez? Pertsonen eskerrona, ondo egindako lanak eman ohi duen poza, pertsonen arteko komunikazioa, bizitzaz ikasten den guztia... Hori guztia lortuta, ezin da esan boluntarioak esperientzia solidariotik esku-hutsik irteten direnik.



**Araban: ERDU**




Agentzia horrek hainbat arlo jorratzen dituzten elkarteekin jarriko zaituzte harremanetan: hegazti migratzaileen segimendua, adinekoentzako arreta, Alzheimerren gaixotasunak jotakoei eta minusbaliotasun fisiko nahiz psikikoak nozitzen dituzten pertsonei zuzendutako konpainia-lanak, inmigranteekiko lankidetza... Landatxo Gizarte Etxean du egoitza: Santa Maria k., 4. 01001 Gasteiz.
Astelehenetik ostegunera, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
✆ 945 161 687
erdu@vitoria-gasteiz.org
www.vitoria-gasteiz.org/erdu

**Bizkaian: BOLUNTA**
Boluntarioentzako orientazio eta bitartekotza-zerbitzua izateaz gain, agentziak Gertu aldizkaria argitaratu ere egiten du, bai paperezko euskarrian bai bertsio digitalean. Aldizkari horretan, albiste, esperientzia, ikastaro eta beste hainbat konturen berri aurkituko duzue, bai eta kanpaina ugaritan parte hartu duten beste boluntario batzuekin komunikatzeko aukera ere. Web gune horren bidez, Janari Bankua, Amnistía Internacional eta beste GKE batzuen helbidea lortuko dituzue.
Boluntak Bilboko Alde Zaharrean du egoitza: Erronda k., z/g (5 zk.ko atariaren aurrean), 2. solairua. 48005 Bilbo.
✆ 944 161 511
Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.
bolunta@bolunta.org
www.bolunta.org




**Gipuzkoan: GIZALDE**
Boluntariotzarako agentzia horren web guneak elkarte, laneko udaleku eta beste zenbait erakunderekin jarriko zaituzte harremanetan, boluntariotza-kanpaina espezifikoei eta beroriek antolatzen dituzten elkarte edo GKEei buruzko informazio zehatza emateaz gain. Kanpaina horietako askok, gizarte-ikuspuntu nabaria izan ez ezik, ingurumenari ere erreparatzen diote; adibidez: erabilitako liburuak biltzea (Guatemalako eskola pobreenetara bidaltzeko), Bidezko Merkataritzari buruz sentikortzea, erabilitako ordenagailuak bildu eta berrerabiltzea (txirotutako hegoaldeko edozein lekutara bidaltzeko), *Marea Bizia* (*Prestige* petroliontziak euskal eta galiziar kostetara ekarritako zikinkeriaren garbiketa)...
Egoitza: Idiakez, 6-behea. 20004-Donostia
✆ 943 428 013
Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
gizalde@gizalde.com
www.gizalde.com

**Musika: Parte hartu zure ahotsaz**

# Oskorri & The Pub Ibiltaria

Ezagutzen duzue Oskorri euskal musika taldearen *Pub Ibiltaria* proiektua? Baliteke zuetako baten bat despistaturik ibiltzea eta Oskorrik urtero proposatzen duen hitzordura oraindik ere joan gabea izatea. Duela urte batzuetatik hona, Oskorri taldeko musikariek Bilboko Areatzan, abenduaren amaieran egiten den Santo Tomas Azokaren egun berean, ipintzen den karpara gonbidatzen dituzte parte hartu nahi duten guztiak.

Taldeak egokitutako herri-abestien bilduma banatzen da, jendeak kanta dezan, eta grabaketa egiten da, urtero, *Oskorri & The Pub Ibiltaria* izenpean.

Musika talde ospetsu horren diskorik ez badaukazue, 1996an argitaratutako *25 Kantu arte* izenburukoa gomendatzen dizuegu; taldeak bere 25. urteurrenean zuzenean grabatutako kontzertua da, eta abagunerako gonbidatu zituzten hainbat musikari europarrek hartu zuten parte: Gwendal, Pedro Guerra, Liam O'Flynn, eta abarrek. Oskorri taldearen diskoei buruzko argibide gehiago aurkitzeko: www.oskorri.com



*Oskorrik urte asko daramatza Euskal Herriko tradizio musikalak ikertzen eta guztion gogora ekartzen, bere kantu propioak sortzeaz gain.*

## bideoklubean

**Auzoko liskartsuen batzarra**

### La estrategia del caracol



Sergio Cabrera kolonbiarrak zuzendutako film hori 1993an estreinatu eta mundu osoan zabaldu zen. Ez da harritzekoa nazioarteko hainbat sari lortu izana, argumentu *estrategikoa* eta burutsua izateaz gain, umore oneko une ugari ageri dira eta.

Bogotan, gainbehera egindako jauregitxo batean bizi den eta baliabide ekonomiko urriak dituen maiztar talde batek helburu beraren alde borrokatzeko elkartzea erabaki du: bizi diren etxea eraits dezaten eragozteko, alegia.

Ahalegin handiak eginda eta irudimenaz baliatuz, lortu egingo dute hasieran inozotzat har zitekeen egitasmoa: etxea soinean eramatea.

## Telebista

**Txikientzako eskulan originalak**

### *Art attack*

(Tele 5-n: Larunbatero, eguerdiko 12:00etan)

JORDI CRUZEK aurkezten duen haurrentzako programa horrek eskulan erraz eta dibertigarriak azaltzen ditu, urratsez urrats. Diseinu bakoitza egiteko jarraibideak, denbora errealean eskaintzen ditu eta, gainera, berriro errepikatzen ditu ostean, zerbait ondo ulertu ez bada ere.

Zeuk ere egin ditzakezu eskulan ederrak; saiatu besterik ez duzu.

Originaltasuna dela eta, telebistako haur programarik onenarentzako saria eman diote.




*Jordi Cruz aurkezlea, telesaioaren bi jarraitzailerekin.*

## *Punttu berdea*

**Iker Alustiza Lasa**, 1974an jaiotako Antiguotarra. Ikasketa eta lanbidez Gizarte Hezitzailea. 18 urterekin hasi nintzen bertsolaritzan eta ordutik Hernaniko *Iraulio Panttalone bertsokabyi*ko partaide naiz. Donostiako bertso-eskola ezberdinetako koordinatzaile eta maisu, bertan gazteekin eskaintzen diot denbora gehiena bertsolaritzari.

Doinua: Iparragirre

*Ama lurrari on egitea*
*izan liteke erreza*
*behar bezela kontsumitu ta*
*erostean ondo pentsa;*
*hau harturik eredu,*
*noizbait lortuko degu*
*bilatzen degun ametsa*
*baina hortarako ezinbesteko*
*degu denon PARTAIDETZA.*

*Kontzientzia behar da aurrena*
*eta ondoren gogoa,*
*begira ondo nahiz erosketa*
*suertatu mantxoagoa,*
*nahiz ta gehio kostatu*
*ta karteran min hartu,*
*jakin zazu bezeroa:*
*esplotatuan tripako mina*
*ez dela ariñagoa.*

# Maiatzean martxan:

## una experiencia de participación

*Begoña Burgoa, profesora en el Instituto de Mungia, es, asimismo, miembro de la AMPA del CEP Legarda alde LHI de la misma localidad vizcaína. Acostumbrada a lidiar los toros educativos desde las dos barreras, ha trabajado también en la Educación Ambiental en el CEIDA de Bilbao. Durante los tres últimos años ha tomado parte en el proyecto Maiatzean Martxan, basado en la participación.*

**Siendo profesora y, al mismo tiempo, miembro activo de una AMPA, pareces la persona ideal para desarrollar un proyecto medioambiental basado en la participación.**

En cualquier proyecto de participación es importante que las ideas surjan desde la base y no impuestas. Durante tres años en las reuniones del Consejo Escolar han tomado parte activamente los profesores, padres y madres y, este último año, los alumnos. He apreciado que cada colectivo quiere mantener su espacio: los profesores tienen miedo a la injerencia excesiva de los padres y madres; estos, asimismo, piensan que las labores de mejora del centro le corresponden al ayuntamiento.

**¿Con qué objetivos se dio inicio al proyecto hace tres años?**

Dentro de un proyecto de mayor ámbito, y con la intención de relacionarlo con el medio ambiente, hace tres años nos planteamos organizar un día para promocionar el colegio. El objetivo principal era trabajar en la sensibilización de la Escuela Pública y en la participación para mejorar la calidad de la escuela. La comisión, compuesta por profesores, padres y madres y alumnos, decide implantar un día en mayo.

**¿Cómo se recogen las propuestas de mejora?**

Cada año empezamos a trabajar después de Navidad. Diseñamos una plantilla en la que reflejamos todas las cosas que se podrían mejorar en la Escuela; para nosotros el Medio Ambiente no es sólo el reciclaje del papel u otros aspectos relacionados, sino también la manera de trabajar entre todos y todas. Así, el primer año realizamos una campaña de sensibilización. En la comisión se recogen todas las ideas y nos organizamos en talleres: bricolaje, pintura, jardinería, una guardería para el día de mayo señalado, que no suele ser un día fijo... este año se ha creado por primera vez un taller para preparar la comida.

**¿Qué balance hacéis de estos tres años de proyecto?**

En general, la gente está muy contenta con el trabajo realizado. La idea la recogimos de una escuela italiana, y no es fácil plantear cosas en una escuela de 60 profesores y 800 alumnos como la nuestra; además, el edificio de la Escuela estaba en unas condiciones lamentables. De ahí surgió la idea: ¿qué podíamos mejorar? y ¿cómo?. El primer año pintamos todos los espacios comunes, los sitios de juego y los pasillos con sus 500 ventanas. Tenemos una mascota, Inurri, que es el símbolo del trabajo realizado. Este año hemos pintado todos los juegos, el gimnasio, etc.

**¿Recibís algún tipo de ayuda para todo este trabajo?**

Para la actividad de este año, que se celebró el 10 de mayo, el Ayuntamiento concedió una ayuda para el material por un total de 2.400 euros. Por su parte, la AMPA puso otros 1.600 euros; y la Escuela, 1.800.

**¿Cómo definirías la participación, relacionada con la Educación Ambiental?**

En mi opinión, es el aspecto del medio ambiente que menos se trabaja y potencia. Es necesario estar abierto ante todas las ideas de todo el mundo. Se pueden plantear mil proyectos desde arriba, pero no es suficiente: tiene que existir una verdadera participación de todos los sectores. En el tema de la Agenda 21 Escolar, que estamos desarrollando este año, por ejemplo, se ha planteado con demasiadas prisas, y todavía no hemos sacado nada en claro. En la organización del Maiatzean Martxan surgen unos vínculos participativos mucho más directos y efectivos.









*Además de reparar y conservar las instalaciones, esta es una actividad apropiada para dar rienda suelta a las cualidades artísticas personales.*




# Lurra eta biok




**Jolasaren garapena** ikasleek ingurumenarentzat kaltegarriak diren egoerak irudikatzeko duten sentiberatasunaren araberakoa izango da.
Oso egokia da Lehen Hezkuntzarako. Izadiko elementuen irudikapen diren euskal mitologiako pertsonaiek (Mari, Basajaun eta Lamiak, beste batzuen artean) gidariarena egiten dute eguneroko bizimoduko agertokietan zehar: sukaldean, bainu-gelan, kalean, eskolan, ikasgelan... guztiz arruntak edo arduragabeak izan daitezkeen jarrerak erakutsiz, hala nola: ura edo energia xahutzea, ingurua lorrintzea, komunitatearen ondasunak ez errespetatzea..., jarrera-aldaketak argudiatzeko beharrezkoa den informazioa ahaztu gabe. Marrazki umoretsu, koloretsu eta erakargarriek oso dibertigarri egiten dute jokoa, nahiz eta, berez, material didaktikoa izan. Inguru hurbileko erabakietan parte hartzea eta erantzukizun indibiduala zein kolektiboa sustatu nahi ditu gizartearentzako onuragarri.
Jolasak aurrera egin ahala, mitologiako pertsonaiek erakusten duten ingurua hobetuz doa: zuhaitzek hostoak berreskuratzen dituzte, ibaietako urek gardentasuna islatzen dute...

**Egilea**: VEISS comunicación. **Koordinatzailea**: CEIDA. **Zuzendaritza**: Biodibertsitatearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. **Argitaratzailea**: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2003.



*"Lurra eta biok" jokoak kontsumoak ingurumenean dauzkan eraginak erakusten ditu.*



*Jolasak, era berean, hiriko ingurumena aztertzen du: hiritargoaren erantzunkizuna, errespetua.*



*"Lurra eta biok" jokoak elkartasunean eta naturarekiko errespetuan hezi nahi ditu gazteak.*

## EKIPAMENDUAK

## *Jolaski Ingurugiro Eskola*

Txangoak Bidasoan eta Txingudiko paduran zehar, motordun txalupan. Ibai-bokaleko eta itsasoko arrantza eta Jaizkibeleko kosta ezagutzeko ibilbideak.

✆ 943 614 447. Hondarribia.


*Itsasontziz paseatzea jarduera gomendagarria da, ikasleek biosferako ekosistemarik handiena, hots, itsasoa, zuzenean ezagutzeko.*

# Material didaktikoak




CEIDAn ESKURAGARRIA

*Material didaktiko hori ikastetxe guztietan banatu zen arren, zuen ikastetxekoa hondatu egin bada, edo, gutxi bidali zirelako, aurkitzen ez baduzue, CEIDAk atsegin handiz utziko dizue, erabil dezazuen.*

## Giza eskubideak jokoan

### Giza eskubideen hezkuntzari buruzko baliabideak

ACERO, Eva (Oinarrian), MIER, Irma (Hegoa). Arartekoaren bulegoak argitaratua. Gasteiz, 2001.

Material didaktiko honen helburua 14 eta 16 urte bitarteko ikasleengan gizarte-konpromisoa sustatzea da. Lau karta multzo ditu eta, horien bidez, lankidetza xede duten zortzi joko ezberdin egin daitezke. Jokoaren garapenari zein iraupenari dagokienez, hainbat iradokizun eta aldaketa erantsi zaizkio, azken taxua zehazteraino, zenbait ikastetxetan probatu ondoren.

Kartekin batera, proposatutako joko bakoitzaren jarraibideak labur-labur azaltzen dituen orri zabalgarria dator, bai eta irakaslearentzako gida didaktikoa ere, materialari etekin guztia atera ahal izateko; gida horretan, jokoak, irizpideak, lortu nahi diren helburuak, metodologiari buruzko iradokizunak eta giza eskubideen historia eta deskribapena azaldu ez ezik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako derrigorrezko arloetarako ariketa-proposamen espezifikoak aurkezten dira, eta kartetan ageri diren irudien edukiak ere deskribatzen dira. Horietako batzuk oso dramatikoak dira.

## Libres para cooperar, libres para crear

### Nuevos juegos y deportes cooperativos

ORLICK, Terry. Paidotribo Argitaletxea. Bartzelona, 1990.




Barruan eta kanpoan egiteko berrehun jolas, adin eta gaitasun guztietako pertsonentzat taxututakoak. Mundu osoko tradizioetako jolasak bildu dira, Artikotik hasi eta ozeano Barearen hegoaldeko lurraldeetaraino. Egileak irudimenari eta lehia baztertzeari ematen die lehentasuna, material garestiak eta trebetasun bereziak alde batera utziz.

## Ética y educación en valores

Guías CISS PRAXIS para el profesorado de ESO. Bartzelona, 2000.




Unitate Didaktiko horretan, parte-hartzea bultzatzeko alderdi garrantzitsuak lantzen dira, hala nola elkarrizketa, bizikidetza eta, azken horren barruan, arauak eta arauok errespetatzearen garrantzia, gizartea ondo ibil dadin. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dinamikak garatzeko bereziki prestatua. CEIDAn eskura daiteke.

## ALDIZKARIAK

### Cuadernos de Pedagogía




**317. zk. 2002ko urria.**

**Proyecto Atlántida: *Educación y cultura democrática.***

Eskolako parte-hartze demokratikoaren kulturan oinarritutako proiektu hori zehatz-mehatz azaltzen da, hileko gaitzat hartuta. Zenbait ikastetxetan, hainbat ziklo eta etapatan garatutako hogei esperientzia deskribatzen ditu. Oso irakurgai interesgarria izan daiteke edozein maila eta hezkuntza arlotako irakasleentzat, erabilitako metodologia eta abiapuntu teorikoa ere azaltzen ditu eta. Hauxe da proiektuaren web gunea: **http://proyecto-atlantida.org**.

## La participación de los niños en el desarrollo sostenible

HART, Roger A. UNICEF. P.A.U. Education. Bartzelona, 2001.




Irakurgai hori oso baliagarria suertatuko zaie Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei. Ikasleen parte-hartzea eta prozesu demokratikoarekiko begirunea nola sustatu azaltzen du. Herri aberats nahiz txiroetan parte-hartzearen inguruan garatutako esperientziak eta haurrekin egindako ikerketa eraginkorra deskribatzeaz gain, haurrekiko eta haurrentzako ingurumen-materialen planifikazio, diseinu eta prestaketaren adibide batzuk aurkezten ditu.

## Cómo fomentar la participación en la escuela

### Propuestas de actividades

PUIG, Joseph M.; MARTÍN, Xus; ESCARDÍBUL, Susagna; NOVELLA, Anna M. Graó Argitaletxea. Bartzelona, 2000.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen parte-hartzea sustatzeko jarduerak garatu nahi dituzten irakasleentzako kontsulta-liburua. Bizikidetza, autonomia, justizia, elkarrizketa eta beste zenbait jarrera eta balio lantzen dira. Liburuaren bigarren zatian, hezkuntza ziklo bakoitzerako proposamen didaktiko espezifikoak aurkezten dira. CEIDAn eskura daiteke.




**BIDEOA**




## Ecoescuelas

ADEAC/FEEE (Ingurumen Hezkuntzako eta Kontsumitzailearen Elkartea). CyberMediak egina.

15 minutu irauten du. Europako ekoeskolen proiektuaren helburua azaltzen du, bai eta, inguruarekiko oreka handiagoa lortzeari begira, ikastetxeek ardaztzat hartu behar dituzten ingurumen-balioak ere. Proiektuan, lehentasuna duten gaiak –ura, energia, hondakin solidoak...– eta jarduerak deskribatzen dira, eta ikastetxeen sare horretan sartu nahi dutenek zer egin behar duten ere azaltzen da.
Oso erabilgarria edozein mailatan. CEIDAn eskura daiteke.

## La alternativa del juego II

### Juegos y dinámicas de educación para la paz

Zenbait egile: Seminario de Educación para la Paz; Asociación Pro Derechos Humanos. Los libros de la Catarata. Madrid, 1994.

Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen Bake Hezkuntzarako Mintegiak 1987tik dihardu irakaskuntza arloan lanean. Liburu honetan, bakearen, giza eskubideen eta garapenaren aldeko hezkuntzaren hainbat esparrutan erabil daitezkeen eta mintegiak aspaldidanik probatu dituen berrehun bat jolas eta dinamika bildu dira. Oso egokia da Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako.




## 101 juegos no competitivos

GUITART, Rosa Mª.
Graó Arg. Bartzelona, 1989.

Liburuxka horren izenburuak argi azaltzen du beraren edukia. *Gozaraziz irakastea* zioen Homeroren irizpidean oinarrituta, helduek jolasetan animatzaile jardutearen beharra azpimarratzen du. Atal honetan aurkezten diren gainerako jolas-liburuetan bezala, elkartasuna funtsezko ideia da; izan ere, jolasa jostagarria izan dadin, partaide guztiak dira beharrezko, onenak garela erakusteko eta lehiatzeko grina alde baztertuta.

## Entre tantos

### Guía práctica para dinamizar procesos participativos sobre problemas ambientales y sostenibilidad

Francisco Heras Hernández Argitaratzailea: GEA, Valladolid, 2002.

Egileak “aitortzen” duenez, lan hori ingurumenaren arloan parte hartzeak zer esan nahi duen hausnartu eta frogatu duten pertsona eta kolektibo askoren esperientzian eta lanean dago oinarrituta. Parte–hartzea kultura demokratikoaren berezko egitatetzat azaltzen du, eta ingurumen-arazo deritzenei buruz ere mintzo da. Bi gai horiek ardatz hartuta, parte-hartzean funtsatutako prozesuak antolatzeko baliabide praktikoak eta kontzeptuzkoak eskaintzen ditu. Ezinbesteko liburua da, bai arlo pedagogikoaren barruan, bai arlo horretatik kanpo ere.



# URDAIBAI proiektu didaktikoa
# Proyecto didáctico URDAIBAI

*“Ingurugiro Hezkuntzarako Materialak” bildumaren osagai berria dugu, Batxilergoko ikasleei zuzendua. Alfonso Cañok, Ricardo Hernandezek eta Kontxi Alzibarrek paisaiaren azterketan oinarritutako analisia proposatzen dute, eurek oso ondo ezagutzen duten Urdaibai aldean. Proiektuak lau unitate didaktiko ditu: lehenengoak Urdaibai zer den azaltzen du oro har, eta beste hirurak behaketa eta analisirako fitxa eta elementu ugariz horniturikoibilbide didaktikoak dira.*

*Nueva entrega de la colección “Materiales de Educación ambiental”, dirigida a Bachillerato. Alfonso Caño, Ricardo Hernández y Kontxi Alzibar, grandes conocedores de Urdaibai, proponen un análisis de este entorno basado en el estudio del paisaje. El proyecto consta de cuatro unidades didácticas: la primera explica qué es Urdaibai en general, y las otras tres son itinerarios didácticos acompañados de gran cantidad de fichas y elementos de análisis y estudio. Editado en euskera.*




# Uren kalitatea
# Calidad de aguas




*CEIDAk aurkezten duen CD hau Santi Agirrek taxutu du, Belén Díez-en laguntzarekin; biak Eibarko Ignacio Zuloaga BHIko irakasleak dira. CDa Ingurumen Kimikari buruzko goi mailako Heziketa Zikloan erabiltzeko prestatu dute, baina Kimika arloko gainerako Heziketa Zikloetan eta Batxilergoan ere erabil daiteke. Uraren analisia egiteko hainbat metodo aurkezten ditu, PDF formatuan, EN45001 kalitate-araua-ren arabera ordenatuta, bai eta analisietako datuen interpretazio estatistikoa egiteko modulu bat ere.*

*El CEIDA presenta este CD desarrollado por Santi Agirre con la ayuda de Belén Díez, profesores del Instituto Ignacio Zuloaga BHI de Eibar. Aunque ha sido diseñado para su uso en el Ciclo Formativo de Grado Superior “Química ambiental”, se puede utilizar también en el resto de Ciclos Formativos de la familia Química y en Bachillerato. Recoge, en formato PDF, diversos métodos de análisis de aguas ordenados según la norma de calidad EN45001, así como un módulo de interpretación estadística de los datos de los análisis.*

***IHITZAren ale guztiak sarean:* www.euskadi.net/ihitza *Todos los números de IHITZA en la web***

*Gai hauek prestatzen gabiltza:*

*13 zk.: Paisaia.*
*14 zk.: Aisialdia.*
*15 zk.: Osasuna.*
*Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.*

*Números en preparación:*

*Nº 13: El paisaje.*
*Nº 14: El tiempo libre.*
*Nº 15: La salud.*
*Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.*

**CEIDA** *ingurumen heziketa zure eskura*


BILBAO
**Ondarroa, 2**
**48004 Bilbao**
• **944 11 49 99**
• ceida-bilbao@ej-gv.es

URDAIBAI
**Udetxea Jauregia**
**48300 Gernika–Lumo**
• **946 25 71 25**
• urdaibai@ej-gv.es

DONOSTIA
**Basotxiki, 5**
**20015 Donostia**
• **943 32 18 59**
• ceida-donosti@ej-gv.es

LEGAZPI
**Brinkola, z/g**
**20220 Legazpi**
• **943 73 16 97**
• ceida-legazpi@ej-gv.es

VITORIA–GASTEIZ
**Baiona, 56–58**
**01010 Vitoria–Gasteiz**
• **945 17 90 30**
• ceida-vitoria@ej-gv.es



EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN